


Kariaz zuritxuta

Hiru orritan zehaztutako faktura legez ailegau jaku. Eta zehaztu esaten danian halantzek da: peoraz peorako eta etxez etxeko Ermuko erdigune guztiaren erregistrua dakarrelako. Juan Ganboa ideltseruak, herriko etxiak kare zuriz ez dakigu pintxau edo desinfektatu bazitxuan, baina behintzat aiuntamentuari kobraturako haretan, nori eta zenbat edarto jasotzen dau.

Ez dogu jakitzerik izan ze sasoikuak diran papelok. Dakiguna da 1918 urtian mundu mailako gripe pandemia bat egon zala eta 1925ian tifus epidemia, herrixan hainbat hildako laga zitxuan. Haren ondorengo desinfektatze premiñiak bultzau ein ete zeban eskaeria? Edo besterik barik: herriko etxe guztiak zuritzia bururatu ete jakon Udalari, ordainketa bere gain hartuaz? Kare bizi-za desinfektatzaile indartsua da eta kareharria, urakin nahaste, primerakua

etxe-hormak zuritzeko. Nahastiori, emoteran darixola jausi ez deian, pasta sendo xamarra da, esnian koloreko; *lechada* deitzen dotsa Juan Ganboak zuriketarako erabillitxako horri. Etxe batzutan, ez danetan egia esateko, *añila* erabiltzen dau elorrixarrak: maixumaistrena, goardia zibilena eta berauen caboarena dotoriago ikusiko ziran hormiari emondako urdin ikututxu harekin! Kaligrafia dotorez eta ortografia "akatzeez", ahokotasunaren sonoritate



zoragarria daukate baserri izenez eta gatzizen hutsez batuta datozen ermuarron izenak: Herrero, Erero da;

Jacinto, Casinto; Matxintxi, Macincici eta Kaskillu, Cascilu bizi guztian!

Estibalitz González

